

BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

3833

EBAZPENA, 2014ko irailaren 5ekoa, Justiziako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoan preso dauden pertsonak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektuetarako diru-laguntzen deialdia ebazten duena.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Herri Administrazio eta Justiziako sailburuak, 2014ko ekainaren 3an emandako Aginduaren bidez, (2014ko ekainaren 11ko EHAA, 109. Zk.), Euskal Autonomia Erkidegoan preso dauden pertsonak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko 2014an burutuko diren proiektuetarako diru-laguntzen deialdiaren oinarri arautzaileak ezarri ziren.

Bigarrena.– Eskaerak aztertu ondoren, eta deialdiaren Aginduaren 10. artikuluan aurreikusitakoa jarraituz, Balorazio Batzordea 2014. irailaren 4an bildu zen eta diru-laguntza emateko proposamena egin zuen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justiziako zuzendaria da Ebazpen hau emateko eskuduna, horrela ezartzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoan preso dauden pertsonak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektuetarako diru-laguntzen deialdia egiten duen Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren 2014ko ekainaren 3ko Aginduak bere 13. artikuluan.

Bigarrena.– Aipatu deialdiaren Aginduak, bere 6. artikuluan adierazten duenez, Justizia Zuzendaritzari dagokio, Helduentzako Justizia Zerbitzuaren bidez, aurkeztutako eskabide guztiak aztertzea eta horiek eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzea.

Hirugarrena.– Deialdiaren Aginduaren 11. artikulua xedatzen duenez, eskabideak hurrengo balorazio-irizpide eta puntuazio-eskalen arabera baloratuko dira:

Eskatzaileari dagokionez:

Eskaera egin duen erakundeak presoak gizarteratzeko eta lan-munduan sartzeko lanetan egin duen ibilbidea. 0-10 puntu.

Proiektua:

a) Programaren onurak jasoko dituzten pertsonen kopurua, eta, gizartearen ikuspegitik, zenbateraino den egokia eta interesgarria. Balorazio handiagoa lortuko dute gizarteratzeko eta lan-munduan sartzeko problematika espezifikoak duten kolektiboak (ijitoak, etorkinak, emakumeak eta osasun mentala duten pertsonak) zuzendutako proiektuak. 0-10 puntu.

b) Presoak gizarteratzeko eta lan-munduan sartzeko prozesuari egingo dion ekarpena; balorazio altuagoa emango zaie presoek espesuetatik kanpo bizimodua ateratzeko aukera ematen dieten proiektuei. 0-20 puntu.

c) Proposatzen diren jardueretan entitate horrek presoekiko esku-hartze sozialean jarduten duten beste erakunde batzuekin eta Lanbiderekin erakutsi duen lankidetzaren eta baterako parte-har-

2014ko irailaren 11, osteguna

tzearen maila. Balorazio handiagoa lortuko dute presoak gizarteratzeko eta lan-munduan sartzeko lanean ari diren erakundeekin egindako lankidetzak eta idazkiaz egiaztaturikoak. 0-10 puntu.

d) Proiektua hainbat urtetan gauzatzeko aukera, proiektua finantzatzeko beste iturri batzuk izatea eta autofinantzaketa. 0-5 puntu.

e) Proiektuan edo programan boluntarioek parte hartzea. 0-5 puntu.

Halaber, artikulua gaineratzen du balorazio-irizpideak aplikatuta, gehienez ere 60 puntu lortu ahal izango direla. Gainera, diru-laguntza emateko, aurreko irizpideen arabera 30 puntutik gora lortu beharko ditu eskabideak.

Laugarrena.– Bestalde, Aginduaren 12. artikulua, zenbatekoa zehaztekoari buruzkoak, bere lehenengoko artikuluan adierazten du Justizia Zuzendaritzak, Helduentzako Justizia Zerbitzuaren bidez, aukera izango duela, diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztu baino lehen, diruz laguntzekoak ez diren gastuen edo proiektuarekin zuzenean lotuta ez dauden gastuen diru-kopuruak doitzeko.

Eskabideen zenbateko diru-laguntza zehazteko, artikulua hurrengo prozedura zehazten du:

– Eskabideak puntuaziorik altuenetik txikienera antolatuko dira. 60 puntu lortu dituen eskabideari (gehienez ere) portzentaje teoriko bat aplikatuko zaio, eskatutako kopuruaren % 100. Gainontzeko eskaerei balorazio irizpideetan lortutako puntuen araberrako portzentaje proportzionala aplikatuko zaie, hurrenez hurren.

– Diru-laguntzen zenbateko teoriko guztiak batu eta aurrekontuen diru-hornidura gainditzen bada, diru-laguntzen zenbateko guztiak proportzionalki egokituko dira, diru-laguntza teoriko guzti-tiei portzentaje berbera jaitziko zaierarik. Portzentaje hori honela kalkulatu da: diru-hornidura zati zenbateko teoriko guztia.

– Diru-laguntzen zenbateko teoriko guztiak batu eta aurrekontuen diru-hornidura ez bada gainditzeko berriz, soberakoa eskabide guztien artean banatuko da proportzionalki, aurreko paragrafoan ezartzen den prozedura bera jarraituta. Horrela kalkulatu da zenbatekoak ezingo du inondik inora gainditu diruz lagun daitekeen gastuaren % 100.

Edozein modutan, proiektu bakoitzari eman ahal zaion gehienezko diru-laguntza 60.000 eurokoa izango da.

Bosgarrena.– Diru-laguntzaren ordainketa eta erakunde onuradunek egin beharreko justifikazioa, diru-laguntza jasotzeko beharrezkoak diren betekizunak bete dituztela eta diru-laguntzaren xede den proiektua burutu dutela egiaztatzea, deialdiaren Aginduak xedatutakoarekin bat etorriko dira. Diru-laguntzak emateko betekizunak betetzen ez badira, Aginduran 19. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

Horregatik guztiatik eta Balorazio Batzordeak egin duen ebazpen-proposamena ikusita,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean zerrendatzen diren erakunde eta proiektuei bertan agertzen diren diru-laguntzak ematea.

Bigarrena.– II. eranskinean zerrendatzen diren erakunde eta proiektuei eskabideak ukatzea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, erakunde interesdunei jakinarazteko, Euskal Autonomia Erkidegoan preso dauden pertsonak

2014ko irailaren 11, osteguna

gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektuetarako diru-laguntzen deialdia egiten duen Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren 2014ko ekainaren 3ko Aginduak, bere 13. artikuluan xedatzen duenari jarraituz.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen, eta interesdunak gora jotzeko errekurtsua jar dezake Herri Administrazio eta Justizia Saileko Justizia sailburuordearen aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 114. eta 115. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko irailaren 5a.

Justiziako zuzendaria,
MANUEL VALÍN LÓPEZ.

2014ko irailaren 11, osteguna

I. ERANSKINA

EMAN DIREN DIRU-LAGUNTZAK

| IFK | Erakundea | Proiektua | Zenbatekoa (eurotan) |
|-----------|--|---|----------------------|
| G20093415 | Fundación Izan | Proyecto de financiación del gasto por el alquiler del centro de inserción social de Donostia | 13.259,17 |
| G48212468 | Asociación Modulo de Asistencia Psicosocial Auzolan | Medidas alternativas para personas toxicómanas con penas de prisión | 3.272,50 |
| G01027390 | Asociación gitana Gao Lacho Drom | Programa de inclusión sociolaboral para internos en el C.P. Araba y otros de la CAPV | 22.337,17 |
| G20893830 | Iresgi | Huerto ecológico y terapéutico de inclusión sociolaboral para personas presas en el C.P. de Martutene | 5.073,60 |
| G20893830 | Iresgi | Salidas programadas y camino de santiago para personas presas en el C.P. de Martutene | 2.211,15 |
| G95005047 | Asociación Susterra Para la Promoción Humana y el Desarrollo Comunitario | "Xangar", centro de inserción y capacitación para personas presas | 13.930,73 |
| G95265286 | Asociación Amikeco para el Tratamiento de la Violencia | Programa de tratamiento de la violencia en condenas por violencia de género e intrafamiliar | 10.712,93 |
| G48229405 | Modulo de Asistencia Psico-social Deusto San-ignacio | Inclusión social de drogodependientes fuera de régimen penitenciario | 4.905,19 |
| G48545610 | Asociación Zubietxe para personas en situación o riesgo de exclusión | Inclusión socio-laboral para personas privadas de libertad | 7.195,76 |
| G20059135 | Aranzadi Zientzia Elkartea | Proyecto de inserción social para la población reclusa de gipuzkoa | 12.249,09 |
| G01174846 | Asociación para la Defensa de los Presos Gizabidea | Salidas y camino de santiago | 6.242,97 |
| G01126127 | Asociación de Reinserción Social Sartu Alava | Centro de orientación y acompañamiento para el empleo | 26.220,46 |
| G48169882 | Fundación Etorikintza | Inclusión sociolaboral para personas presas drogodependientes | 24.971,86 |
| G01237882 | Asociación Salhaketa-araba | Reinserción socio-laboral e integración social de presos en libertad condicional en el piso de larga estancia | 3.549,84 |
| G01042670 | Comisión Ciudadana Antisida de Alava | Piso de acogida e incorporación laboral | 2.195,03 |
| G01042670 | Comisión Ciudadana Antisida de Alava | Apoyo y acompañamiento jurídico a personas usuarias de recursos de sidalava | 1.288,76 |
| G01042670 | Comisión Ciudadana Antisida de Alava | Actividad de formación ocupacional para personas privadas de libertad | 2.692,93 |
| G01042670 | Comisión Ciudadana Antisida de Alava | Módulos psicoeducativos para la inclusión laboral y comunitaria | 1.313,48 |
| G48473045 | Fundación Gizakia | Proyecto extrapenitenciario de inclusión socio-laboral de personas drogodependientes presas | 23.310,79 |
| G81436099 | Fundación Adsis | Proyecto de integración sociolaboral (PISL) | 14.240,25 |
| G81436099 | Fundación Adsis | Centro de día adsis-bestalde | 10.976,47 |
| G81436099 | Fundación Adsis | Campo de trabajo adsis bestalde | 2.781,34 |
| G81436099 | Fundación Adsis | Salidas programadas culturales, deportivas y formativas | 1.249,89 |
| G01037431 | FEDEFES | Ateak zabaldu. Atención integral a las personas con enfermedad mental afectadas por el régimen penal | 13.743,59 |
| F48211080 | Gaztaroa Sartu | Centro de orientación y acompañamiento para el empleo Gaztaroa Sartu koop | 22.408,70 |

2014ko irailaren 11, osteguna

| IFK | Erakundea | Proiektua | Zenbatekoa (eurotan) |
|-----------|--|---|----------------------|
| G01059146 | Asociación de Ayuda al Preso ADAP | Habilidades sociales e inserción laboral 2014. Mujeres del C.P. Alava/Araba | 1.938,26 |
| G48487748 | Asociación para la inserción social Zabaltzen de Durango | Centro de orientación y acompañamiento para el empleo zabaltzen | 10.869,45 |
| G48852578 | Asociación Claretiana para el Desarrollo Humano Sortarazi | Programa de incorporación sociolaboral para personas presas | 6.956,45 |
| G48578017 | Asociación Goiztiri Elkartea | Programa de formación y capacitación de personas presas en Goiztiri | 9.011,32 |
| G48578017 | Asociación Goiztiri Elkartea | Recurso residencial Goizargi dirigido a mujeres presas 2014 | 15.679,20 |
| G48578017 | Asociación Goiztiri Elkartea | Programa de acompañamiento a la inclusión laboral de personas presas 2014 | 7.602,21 |
| G48717045 | Asociación Bidesari de Pastoral Penitenciaria de Bilbao | Servicio de apoyo para la integración social | 4.857,62 |
| G48717045 | Asociación Bidesari de Pastoral Penitenciaria de Bilbao | Piso de integración Hedatu | 14.492,60 |
| G48717045 | Asociación Bidesari de Pastoral Penitenciaria de Bilbao | Piso de inserción Berrituak | 5.446,32 |
| G48717045 | Asociación Bidesari de Pastoral Penitenciaria de Bilbao | Piso de acogida Aldatzen | 4.869,51 |
| G48717045 | Asociación Bidesari de Pastoral Penitenciaria de Bilbao | Servicio de acogida en permisos | 6.376,74 |
| G48717045 | Asociación Bidesari de Pastoral Penitenciaria de Bilbao | Salidas programadas de día | 1.572,63 |
| G95237491 | Asociación Zubiko - Zubiko Trebakuntza eta Lan Sustapena Elkarte | Acompañamiento para la inclusión socio-laboral de personas presas de la CAPV | 21.612,55 |
| G95561650 | Asociación Centro de Psicoterapia Humanista Erain | Programa de atención psicosocial y comunitaria a personas privadas de libertad | 7.313,19 |
| G20181319 | Asociación para la Reinserción Social Erroak | Proyecto de orientación y acompañamiento para el empleo de la asociación Erroak-Sartu | 18.060,01 |
| G01174846 | Asociación para la Defensa de los Presos Gizabidea | Campos de trabajo | 2.226,66 |
| G20662862 | Asociación Arrats | Programa de acompañamiento individual en procesos de inclusión socio-laboral | 6.203,44 |
| Q2866001G | Cruz Roja Española | Activación y acompañamiento al empleo de mujeres presas de la comunidad autónoma del país vasco | 2.578,20 |

2014ko irailaren 11, osteguna

II. ERANSKINA

UKATU DIREN ESKABIDEAK

Eranskin honetan zerrendatzen den erakundeari diru-laguntza ukatu zaio, balorazio-irizpideetan eskabideak ez dituelako 30 puntu baino gehiago lortu. Puntuazio hori diru-laguntza emateko beharrezko baldintza da, hala zehaztuta baitago Euskal Autonomia Erkidegoan preso dauden pertsonak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektuetarako diru-laguntzen deialdia egiten duen Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren 2014ko ekainaren 3ko Aginduaren 12. artikuluan.

| IFK | Erakundea | Proiektua |
|-----------|-----------|---------------------------------|
| G20070165 | AGIPAD | Programa penitenciarario agipad |